


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,2 jaitsi ziren 2005eko azaroan

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko azaroa, 2004ko azaroarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %4,0 gehitu ziren

2005eko azaroan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,2 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta azaroko urte arteko tasa %4,0ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*) Hazkundera azaroko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko azaroan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0) eta lehengaien kostuak, berriz, %0,3 jaitsi ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera berezituak izan zituzten euren lehengaien kostuetan: Eraikuntzan indizea %0,2 jaitsi zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilean %0,9. Baterako emaitza %-0,3koa izan zen, Eraikuntza azpisektorea pisutsuagoa delako Obra Zibila baino. Azpisektore bien urte arteko bilakaerek antzeko aldakuntzak izan zituzten: Eraikuntzako lehengaien kostuak %3,8 igo ziren eta Obra zibilekoak %3,4.

Azaroan prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *energia elektrikoa* (%3,7), *leherkariak eta gasak* (%1,8), *pinturak eta bernizak* (%0,6), *lur egosiak* (%0,5), *egiturak eta galdaragintza* (%0,3) eta *beira* (%0,3)

lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *petroliotik eratorriak* (%-6,8), *metalezko hoditeria* (%-4,8), *asfalto-produktuak* (%-3,6), *karea*, *igeltsua eta eskaiola* (%-2,4), *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-1,2) eta *zementu artifiziala* (%-0,4) lehengaiak.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *asfalto-produktuak* (%35,5), *petroliotik eratorriak* (%21,0), *leherkariak eta gasak* (%7,1), *lur egosiak* (%6,7), *esku-erremintak* (%6,3) eta *harri elaboratua* (%5,9) lehengaiak. Aitzitik, urteko arteko prezioetan murrizketak izan zituzten *metalezko hoditeria* (%-4,3), *karea*, *igeltsua eta eskaiola* (%-2,3), *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-2,2), *bulego-materiala* (%-2,1), *energia elektrikoa* (%-0,5) eta *egitura metalikoak eta galdaragintza* (%-0,3) eta lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005EKO AZAROA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,9	-0,2	4,0	4,0	
ERAIKINAK	119,9	-0,1	4,0	4,0	
OBRA ZIBILA	120,0	-0,6	3,9	4,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	117,3	-0,3	3,7	3,8	
ERAIKINAK	117,4	-0,2	3,8	3,8	
OBRA ZIBILA	116,7	-0,9	3,4	3,7	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp